

BALEIKE

250. ZENBAKIA. EURO BAT
2016ko URTARRILA

www.baleike.eus

A photograph of three young men sitting on a green artificial turf field. The man on the left is wearing a red and white polo shirt and blue jeans, holding a soccer ball. The man in the middle is wearing a yellow t-shirt with a blue logo and grey pants, sitting behind the other two. The man on the right is wearing a blue and red striped jersey with 'AVIA' on the front and blue jeans, also holding a soccer ball. There are several soccer balls scattered around them on the grass. In the background, a white line marks the edge of the field, and a brick building is visible in the distance.

ETORKIZUNA
BERDEGUNEAN

INAXI ETXABE, BERTSOZALE AMORRATUA

GUREAN, ETXEAN BEZALA



BALEIKE 250

Arnaitz Rubio Aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustin Zubimendi eta

Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Maialen Odriozola, Juan

Luis Romatet, Miriam Romatet, Peio Romatet,

Arnaitz Rubio, Jon Urbieta, Izaskun Urbieta eta

Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

azubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

15

baleike+

HIRU FUTBOLARI

5

iritzia

ALKATEARI

ERANTZUNEZ

6

herritik kanpo

GARAZI ALKORTA

9

elkarriketa

INAXI ETXABE

24

baleikekoak

GIDA MARTXAN

27

erretratua

JOXEAN GARCIA

30

agenda

URTARRILA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udalak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



kutxa



kutxabank

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES, Iruzuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumai (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel./Faxa: 943 14 31 20
www.a3zumaia.com
a3@a3zumaia.com

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak

fb

TXIMISTA

garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (Hodilloak)
Salbitzak, oilaskoak...
Garagardok aukeran

Ondartza plaza, 4 beheko - Tel.: 943 573 905

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943 861 280

AIZPURUA

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI

dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 726188
943 143261

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

BALEIKE

Egin zaitez
BALEIKEko
bazkide



Ardantzabide

ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943 862 532

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 861 631

ARGISUN

ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozko
- Iturgintza
- Energi berriztogarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA
Okindegia

Nazketa, 2 - tel. 943 501 001

ZUMAIA

OGI-EDER



ARRUTI

Basadi Etxe 2/0
Zumaia 943016428



BOSCH
Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
autoszumaia@bosch-bcs.com

Tel. 943 861 485



BAKUN

ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

Sari Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa: 943 148 306
bakun@ouskainet.net



Basadi
albaitaritza

Ribaitorio
Itaki Garmendia

Basadi, 7, beheko - tel. 943 143 310
www.basadialbaitaritza.com
www.basadialbaitaritza.com

Gorbea: 11-13 / Arrabaldo: 15-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean itala
Lantekidetasun: 605 728 707 Etxez ebeko zerbitzuak



BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Patxika Etxezarreta, 25
20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Tel.: 943 86 20 73
943 86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



Braky's
Okindegia • Kafeategia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

Alkateari erantzunez

Gaur egunean ez dagokigu guri Udala kudeatzea, baina gaur egun ardura hori dutenek interpelatu gaituztenez, zuzenean leporatu dizkiguten zenbait gairen inguruko gure ikuspuntua adierazi nahiko genuke:

1.- Leporatu digute oposizioarekin ez gurela bilerarik egiten. Gobernuaren eta oposizioaren arteko lanak bideratzeko, aldiro-aldiro arlokako batzordeak egitea bezalakorik ez dago. Bertan, alderdi politikoetako ordezkariak gain, arlo bakoitzeko teknikariak hartzen du parte eta bileraren aktak jasotzen dira. Horrez gain, arlokakoak ez ziren gaiak, plenora eraman aurretik, bozeramaileen batzordean eztabaidatzen ziren. Jakinik oraingo udal gobernuak 6 hilabete daramatzala lanean, gure lehendabiziko 6 hilabeteetako datuak eskuratzeko eskatuko genieke, konparatu eta ondorioak ateratzeko, arinkeriaz horren inguruko zerbait esan aurretik.

2.- Egungo alkateak adierazi duenez, ezustekoak izan dituzte. Harritzen gaituena da, ordea, bere ustez txarrak direnak bakarrik aipatze; izan ere, argi laga nahiko genukeezusteko onak ere aurkitu dituela egungo gobernuak. Adibide esanguratsuenak aipatzeagatik, gure urteetako kudeaketaren emaitzen ondorioz, udal kontuak 1,5 milioiko gerakin positiboarekin itxi genituen (eta hemen gogoratu beharko genuke publikoki leporatu zigtela hondamendi ekonomikora

eramango gurela herria); egoera ekonomiko horrek lasaitasuna ematen du gaur egun Udala txukun kudeatzeko. Edo frontoiko lanetarako 350.000 euroko diru-laguntza geuk eskuratu genuen. Edo geuk laga genuen onartuta Aita-Mari poligonoa urbanizatzeko obrak esleitzeko prozedura. Edo geuk jarri genuen martxan zaborrak biltzeko eta kaleak garbitzeko zerbitzuak berritzeko prozedura. Edo geuk esleitu genuen egungo plan estrategikoa egitea. Edo geuk egin genituen Futbol federazioaren eskutik jasotako diru-laguntzen gestioak. Edo geuk gestionatu genuen Santiago hondartzako proiektua eta obrak esleitzeko bidea.

3.- Ez genuke sartu nahi bi gobernuen arteko ikamikatan. Bi gobernuak garaian garaiko herri babesean oinarritu dira. Bakoitzari bere lana egitea tokatzen zaio. Eta egun, dagoen gobernuari tokatzen zaio lan egitea. Egungo lana ez dadila oinarritu aurrekoen lana desitxuratu eta gutxiesten. Udaleko jardunaren balorazioa Udalean dauden zinegotziek egin behar dute, beraien artean egin behar da, eta gu ez gaude. Bakoitzak bere lana egin behar du.

Iñaki Agirrezabalaga, Arritxu Gonzalez, Maitane Agirre, Iñaki Ostolaza, Aitor Leiza, Peru Arroia, Eneko Agirre.

ERROTA



OPIL OKINDEGIÀ

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

GARAIZI **ALKORTA**

“Ikastea eta lan egitea batzen dituen au pair programa bati esker etorri naiz **New Yorkera**”

Komunikazioko Gradu ikasketak amaitu zituen ekainean Deustuko Unibertsitatean, eta azarotik New Yorken bizi da 22 urteko zumaiar gaztea. Urtebeterako joan da hiri erraldoi hartara; “Ez naiz Manhattanen bertan bizi; orduan, aldaketa ez da horren handia izan eta erraz egokitu naiz. Oso pozik nago”, kontatu du.

TESTUA: IZASKUN URBIETA
ARGAZKIA: GARAIZI ALKORTA

Zer dela eta joan zara Ameriketako Estatu Batuetara?

Ikastea eta lan egitea batzen dituen au pair programa bat egi-tera joan naiz. Batzuek ikastearen zatia ingelesa hobetzeko aprobetxatzen dute; nik, berriz, ikasketekin lotutako zerbait egin izan nahi dut, eta marketin eta komunikazioaren inguruko kurtso bat egiten ari naiz. Asko gustatzen zaizkit klaseak, gaia gustuko dut eta asko ikasten ari naiz; gainera, klasean munduko txoko guztietako jendea dago, eta hori ere aberasgarria da.

Zer egiten duzu denbora librean?

Ikasi eta lan egiteaz gain, asko gustatzen zait lagunekin irtetea. Horregatik, goizetan klasera joan baino lehen, beraiekin elkartzeko naiz, eta unibertsitatetik ateratakoan ere elkarrekin bazkaltzen dugu.

Arratsaldean familiako haurrak zaintzen ditut, eta, gauean ere normalean kalera joaten gara. Aste bukaeretan gehienok libre egoten garenez, Manhattanen pasatzen dugu eguna, txoko berriak ezagutzen.

Zeinekin bizi zara?

Familia batekin bizi naiz; ama euskalduna da, eta aita amerikarra. Bi seme-alaba dituzte, Aritz eta Ainara. Hurrekin askotan euskaraz hitz egiten dut, eta, gainera, askotan Euskal

“Familia batekin bizi naiz; ama euskalduna da, eta aita amerikarra”

Herriko ohiturak mantentzen dituzte. Beraz, aldaketa ez zait horren gogorra egin.

Zerk harritu zaitu gehien New Yorketik? Pelikuletan agertzen den bezalakoa da?

Bai, halaxe da. Eraikin handiak daude, eta jende asko ibiltzen da alde batetik bestera. Aste barruan nahiko frenetikoa da, baina asteburuetan ez horrenbeste.

New Yorkera joan aurretik, Deustun egin dituzu Komunikazioko ikasketak. Gradu amaierako lanarengatik sari bat jaso duzu. “Ignacio Ellacuría de Estudios de Interés Social Aristos Campus Mundus 2015” izenekoa. Nola hartu zenuen berria?

Ez nuen saria irabazteko esperantzarik, eta, egia esan, ez nuen gehiegi begiratu ebazpenaren inguruko ezer. Berria kasualitatez jaso nuen, nire lagun batek Deustuko web orrialdean aurkitu ondoren.

Charlie Hebdo aldizkari satirikoaren aurkako atentatuak hartu zenituen zure lanaren oinarri. Zergatik? Zer nahi zenuen kontatu?

Charlie Hebdo atentatuetatik abiatuta komunikabideek guregan duten eragina nahi nuen aztertu. Erasmus ikusitakoa-





Izen-abizenak: Garazi Alkorta.

Adina: 22 urte.

Ikasketak: Komunikazioko Gradua.

Afizioak: Bidaiatzea eta musika.

New Yorketik gustatzen zait...: Aspertzeko aukerarik ez dago; nahi duzun guztia, nahi duzun bezala eta nahi duzun momentuan egiteko aukera.

New Yorketik ez zait gustatzen....: Metroa.

Zerekin akordatzen zara bereziki: Amamaren etxeko janariarekin.

gatik erabaki nuen gai honen inguruan zentratzea gehienbat, batez ere ikusi nuelako kanpoko jendeak Euskal Herriko egoeraren inguruan zuen informazioa eta gure egunerokotasunaren inguruko beraien pertzepzioa oso desberdinak zirela. Horretaz ohartzean, burura bi galdera etorri zitzaizkidan: “Egia ote da guk beste kulturen inguruan entzuten duguna?”, eta “Horrek eragina al du kultura horiekin dugun erlazioan eta horiekiko tratuan?”, eta horrela hasi nintzen lanarekin pixkanaka-pixkanaka.

Zure lanaren ondorioetako bat izan da komunikabideek duten boterearen kontzientziazioa. Horretaz gain, kulturantzitasuna ere landu duzu lan honetan. Zer ondoriotara iritsi zara?

Bai. Inkonstzienteki bada ere, komunikabideek botere handia dute gizartean; bi aldiz pentsatu gabe sinesten dugulako diotena. Komunikabideak errealitate sortzaile bezala ikusten ditut gaur egun; eguneroko kontuei buruz dakigun guztia, “errealitateari” buruz dakigun guztia, beraiek sortu eta zabaltzen dute munduko txoko guztietara. Eta,

Inkonstzienteki
bada ere,
komunikabideek
botere handia
dute gizartean; bi
aldiz pentsatu gabe
sinesten dugulako
diotena.

noski, errealitatea sortzeko prozesu horretan, askotan, atzean dauden ideologiek edota interesek indar handia izaten dute. Ikusle, entzule edota irakurleok errealitate hori sinesten dugu itsu-itsuan, eta gure egunerokoa baldintzatzen dugu. Horre-

la, lanaren ondorio nagusietako bat izan da komunikabideek kultura arteko erlazioetan eragin handia dutela, eta askotan negatiboa.

Azaroan Parisen gertatu ziren atentatuek zure lanari jarraipena eman diezaioke. Zer iritzi duzu horren inguruan? Nola tratatu dute komunikabideek gai hori? Nola ikusi duzue Estatu Batuetan gai hori?

*Charlie Hebdo*ren kasuan bezala, komunikabideek beraien ideologiak baldintzatu, diskurtso ezberdinak sortu zituzten. Eta, horren ondorioz, kasu askotan, gizartean ideia okerrak zabaldu ziren. Estatu Batuetako prentsa, nolabait esateko, erradikalgia da kontu horiek tratatzeko orduan: “haiek” eta “gu” binomioa asko erabiltzen

dute, eta, horretan, onak (gu) eta txarrak (haiek) argi eta garbi bereizten dituzte. ■

BEDUA ITURGINTZA S.L.

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700

Egin zaitez
BALEIKEO
bazkide



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

BEEP

DIGITAL+



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045

ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza

tel./faxa: 943 143 395

Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A

tel. 943 016 353

FLYSCH UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 11 63 97

Galdona



burdindegia

Mondaroz murrera, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 300

Garbata

TABERNA

Juan Belmonte, 5

tel. 943 861 057



kafetegia

Txomin Agirre kala

Tel. 943862181

GLENCOE

INGELES AKADEMIA

4 PERTSONAKO
TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behe
tel. 670 391 777

matrikulazioa dohainik!



Tapaia

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

yoana ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behe
943 143 278



Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behe
tel./faxa 943 865 020
info@goldengateinstitute.com



lñaxi **ETXABE** | bertsolaria

“Bertsozale ikaragarria izan naiz”

Oikian esaten zioten Joxepa lñaxi; gero etxera joaten zen emakume batek Joxepi esaten zion; Zarautzera neskame joan zenean lñaxi deitzen hasi ziren, eta horrek tapatu zituen denak. Zarautzen zumaiarrekin egon da eguerdian, eta oikiarrekin iluntzean, meriendatzera eta lkastola Txikiko bertso jaialdira gonbidatu dutelako.

TESTUA: JON MAIA ETA XABIER AZKUE



ARGAZKIAK: ALBERTO ELOSEGI / XDZ

(Jon) Nola bizitu zenuen finalaren eguna, Iñaxi?

Ondo. Harritu nintzen telefonoz deitu zidatenean: “nola akordatu zarete nirekin? Ez al dago ni baino inportanteagorik” esan nien, eta haiek “Garai hartakorik ez, zu nahi dugu etortzea”. Hainbeste pentsamendu etorri zitzaizkidan, urduritasun pixka bat, bizkarreko minak eta... Gero normaldu nintzen, lasaitu, baina eguna ondo pasatu nuen. Kantatzeko orduan ere ondo egon nintzen, ez nintzen halako urduri egon. Ikaragarria izan zen, izugarria, bukatu zenean eta. Baina ez nintzen emozionatu hainbeste.

Agurra nola prestatu zenuen?

Bertso buruan neukan, ondo hartuta, eta hori inportantea da, horrela kantatzeko eta. Egin nuen, gero hitz bat edo beste aldatu... eta ondoena nola dago?, holaxe. Nik beti hala kantatu dut, bat-bateko bertsolaria ez naiz izan behin ere, beldurra eman izan dit horrek, huts egingo nuela... Buruan hamar bertso edo auskalo zenbat denak hartuta, kantatzeko prest.

Sekula ez genuen ikusi amona bat oholtza batean bertsoetan...

Ez, hori ez zen 50 urteko emakume bat, amona zen, amona baten edadea ondo daukana, gainera. Orain horregatik



“Bat-bateko bertsolaria ez naiz izan behin ere, beldurra eman dit horrek”

dabilkit hainbeste jende kalean! Zenbat jendeek gelditu nauen... Emakume batek esan zidan “zuk merezi zenuen txapela ematea!”. Nik pentsatu nuen isil-isilik joango nintzela, baina zabaldu da lau haizetara ederki asko.

Garrantzitsua iruditu zaizu emakume bertsolariei, ezkutu egon direnei, halako aitor-tortza egitea?

Oso polita da. Lehengo udan ere Zarauzko frontoi txikian egin ziguten halako omenalditxo bat ere, pala txapelketa baten finalean. Aizarnako erraketista bat ere bazen, eta hura ere etorri zen, irabazleei txapela jartzera. Bertso pare bat kantatu nituen, eta han ere txalo asko; ez ziren 7.000, baina...

Sekula ikusi zenuen zure garaian emakumerik bertsoetan?

Esaten zuten Xenpelarren arreba eta beste bat ere izan zirela... Irakurri izan nituen, baina ez dakit zenbateraino ibiltzen ziren. Nik ez dut emakumerik ikusi. Santa Klaran bazen moja bat, Aiakoa, gazte etorri zena; hura ere bertsolaria zen, nik Arantzazuko bertsoak jarri eta saria eman zidatenean, bigarren saria atera zuen.

Paperekin zaletu omen zinen, ezta?

Gure etxean beti izaten ziren. Orduan ferian ere saltzen zituzten, erromerietan ere bai. Anaiak eta aitak ekartzen zituz-

ten, eta denok kantatzen genituen. Paperak sartu patrikan eta joaten nintzen mendira, lanera. Aurrena frantziskotarren hirugarren ordenako bazkari batean kantatu nuen, urrezko ezteien ospakizun batean; pentsatu nuen nik ere kantatu behar nuela. Inork ez zekien, baina ekarri nituen buruan, igual hamar izango ziren; eskuan kortxo bat hartu nuen, eta kantatzen ari nintzen bitartean txiki-txiki egin nuen. Sorpresa izan zen jendearentzat, Basarri ere zeharo harritu zen. 1955ean izango zen. Irratian hitz egiten zuen gizon batek, Manuel Oñatiak, esan zidan: “Ño! Oikian lur ona, eee?”.

Zer bertsolari entzuten zenituen orduan?

Basarri eta Uztapide... Mattin eta Xalbador ere etortzen ziren, baina haiei ez nien ondo ulertzen, hitzak ulertu gabe gelditzen zitzaizkidan. Zarautzen hor ibiltzen nintzen bertsolariei segika, Fronton Zineman eta... Zalea, ikaragarria izan naiz.

Sekula pasatu zitzaizun burutik zeu hastea kantuan?

Ni hasi nintzen, toki askotan kantatu nuen, baina beti erlijioaren inguruan, beste aldera ez nuen jotzen, hortik ere eskatzen zidaten nahikoa eta. Tabernan eta ez. Bat-batean broman edo pixka bat bai, baina beldurra eman dit jende aurrekoak. Nik nirearekin segitzen nuen: aurrena buruan hartu eta gero haiek bota. Ezkontzetan ere asko kantatzen nituen, eta izugarriak armatzen ziren, jendea gustura, txaloka.

Ez zenuen zu bezalakorik, lagunik kantarako?

Lehengusu bat bazen, josten ere ibiltzen nintzen etxe hartan, eta anai bat bazuen, santa eskean ederki egiten zuena bertsotan; tartamutua zen, baina bertsotan ez zuen batere totelik egiten.

Jornalik ematen al zizuten saioetara joaten zinenean?

Sekula ez, bazkaria, ematen zutenean. Donostian izan nintzen behin, Oiartzunen ere bai, Azpeitian bi aldiz...

Harremanik izan al zenuen Basarri ez beste bertsolariekin?

Gutxi, Agirre eta Lazkanorekin zer edo zer. Arozamena nafarrarekin bai, dezente, Zarautzen lan egiten zuelako. Eta Lasartek ere Oikian lan egiten zuen garai batean, herrerotegian, eta Aizarnazabalekin muga egiten zuen etxe batean bizitzen zen; santa eskean ere ibiltzen zen hura, Oikiako kuadrillak hartzen zuen. Esaten zituen ederrak kanpotik, nigatik ere jarduten zuen, zirikatzen... Eta asko gustatzen zitzaidan bes-tela ere, Lasarte.

Zergatik ez da egon emakume bertsolari gehiago?

Ez dakit. Jendeak ez zion afizio horri helduko eta. Bizimo-



Iñaxi Bidegileen artean

Iñaxi Etxabe oikiarrak badu bere txokoa Bidegileak bilduman. Bilduma hau 1987an sortutakoa da eta bertan euskararen alde aritutako norbanakoen, Euskal Herrikoen zein kanpokoek, bizitza eta lana jasotzen da. Bildumak, bestalde, pertsona horientzako omenaldi bat izan nahi du, gaur egungo belaunaldiak eta etorkizunekoak horien lana ezagut dezaten.

Nikolas Aldaiek egin zuen 2007an emakume honen soslai eta bildumako 47. zenbakia du. Hala definitzen du: bertsozale eta bertsolari. Emakume bertsolaria izatean, jendaurreko saio gutxi egindakoa. Bere burua ez dauka bat-bateko bertsolaritzat. Arantzazuko bertso-sariaren (1956) eta San Frantzisko Hirugarren Ordenakoen sariketaren (1957) irabazle.

Liburuxka hau eta bildumako besteak eskura daude Interneten.

dua diferentea zen, bertso eskolarik ere ez zen orduan... Bertsolari hasi zirenak gogoan ditut, Arantzazu Loidi eta... gero isildu zen. Bestea ezkutatu dena Estitxu Arozena, eta baita Jon Enbeitaren alaba ere; orain bestea dago, Onintza, lehengusua.

Gaur egungo bertsolaritza ere segitzen duzu, beraz... telebistatik eta?

Irratitik gehiago. Nik irratian asko kantatu dut, Euskadi Irratian eta, Mertxe Ezeiza eta Nikolas Aldairekin. Zenbat kantatu, garai batean! Puntua jarrita eta, oso polita izaten zen, telefonoa hartu eta erantzuten. Ikaragarri bertso ederrak dauzkat horrelakoak, gordeta. Aldizkariak ere asko dauzkat, nire bertsoekin. Orain horiek argitaratu behar dituztela, baina ez dakit noiz eta non. Bideoak ere hortxe daude, denak gordeta.

Oikian lur ona



XABIER AZKUE

OMENALDIA

*Iñaxi Oikiako Ikastola
Txikian, Errotaberri bertsu
eskolako kideekin.*

(Xabier) Oikiako kontuak galdetu nahi dizkizut nik, txikitan zer egiten zenuen eta...

Pilotan, gogotik. Nagusi izan nintzen, beste batek menderatu ninduen arte, morroi etorri zen mutil fuerte batek; lehenagotik denei irabazi egiten nien. Maistra eta alkatea han egoten ziren begira. Askotan mutilak eta neskak haserretu egiten ziren. Mutilak neskekin, baina nirekin ez ziren sekula haserretzen. Harizko pilotak erabiltzen genituen, maistrak ere egiten zizkigun. Alkateak esaten zidan: “nik ekarriko dinat hiri erraketa bat, Donostiara joaten naizenean”; Donostiara asko joaten zen, baina erraketarik ez zen etorri. Ez genuen palarik eta holakorik ibili, beti eskuarekin. Frontoian eta zimitorioan ibiltzen ginen.

Eskolan zer egiten zenuten garai hartan?

Guk maistra zumaiarra genuen, Angelita Zinkunegi, euskalduna. Esaten zuten ezin zela euskaraz hitz egin, baina gurekin asko egiten zuen. Trenean etortzen zen askotan, eta elkarrekin joaten ginen askotan Oikiara. Asko estimatzen ninduen eta beti amistade handia izan genuen. 14 urte arte ibiltzen zen orduan Oikian, eta horrekin gelditu nintzen.

Zumaiara joaten zinateen?

Anai bat Zumaiara bizi zen eta asko ibilia naiz. Oroitza-

“Jendea asko etortzen den dinamitarekin, arraina hiltzeko”

pen onak dauzkat, festetan eta, sanpedroak, santelmoak eta... Trenean joaten ginen, baina gutxi zeuden eta oinez ibiltzen ginen askotan trenbidetik, bi tunel eta zubia pasatuta; makila bagenuen ondo, tunelean ilunpetan joateko ezer ikusten zela, eta tren egokitu ere bai batzuetan, tunelean, baztertuta.

Soburutz baserria ibai ondoan dago. Arrantzan ibiltzen zinateen?

Arrantzan, igerian, anguletan... Ni ere ibiltzen nintzen. Nik egunez harrapatu nituen aurrea angulak, hantxe, gure etxearen azpiko aldean. Aingirak ere harrapatzen genituen, hura ere ur zikinarekin; batzuetan platuxak ere bai, sardea bezalako batekin.

Arraunean ikaragarri ibili nintzen. Txanal txiki bat bagenuen, polita oso, eta jai arratsaldean ere joaten nintzen, marea goian zegoenean, Beduaraino, bakar-bakarrik. Eta txanal handiarekin, ni arraunean eta anaia atzean, nik egiten nuen indarra kontrolatzeko.

Jendea asko etortzen zen dinamitarekin, arraina hiltzeko. Lazunak izaten ziren, arrain finik ez. Presa genuen etxeko gaineko aldean, gero bota egin zuten. Han mutil bat ito zen, 30 urtekoa, txori bati tiroa bota, Jesuskoan, sartu da uretara jasotzera, eta ito. Gure etxera etorri zen abisua, txanalarekin joateko; nik eraman nuen, eta harekin atera zuten gorputza.

Baserrian nolako lanak egiten zenituzten?

Klase guztietakoak. Behian bitzen ez nuen ikasi, behin anaiak purrusta egin zidan, eta eskerak ez nuen ikasi, bestela makina bat aldiz egin beharko nuen! Gainontzean, segan eta denean. Etxean esan zidaten ea nahi nuen joan kolejiara Zumaia-ra, eta beldurra ematen zidan, hango neskak erdaraz eta, eta ez nintzen joan, hantxe segi nuen etxean, lanean. Urik ere ez genuen etxean, ekarri egin behar baldearekin. Menditik etortzen zena zegoen albergan, arropa garbitzekoa; edateko uraren iturria urrutiago zen, Errenteria baserriko soroaren ondoan.

Beheko suan ere taloak egin eta... Errotara ere makina bat aldiz joanak gara, aurrena Aizarnazabalen, eta bestea Narrrondon. Gero Oikian jarri zuten, eta eroso, Txabola esaten zioten inguru horretan jarri zuten. Paseatu behintzat egiten genuen, astoarekin.

Bizimodua ondo ikasitakoak gara.

Erromerietan ibiltzen zinaten?

Bai, 12 urterekin hasi ginen Meagara joaten erromeriara; kuadrilla handia ginen, neskak, 8 edo 10. Aurrena joaten ginen bezperetara, gero etxera joan, merienda hartu eta Meagara. Orduan izaten ziren gantza-kentzaileak eta, *sacamantecas*, eta automobila ikusi bazetorrela poliki-poliki eta

“eneeee”, zelaian gora igual joaten ginen. Izugarrizko beldurra ematen zigun. Festak non ziren, sanmigeletan Artadira joaten ginen, Arroabehera ere joaten ginen, trenbidetik, Karmenetan; Ibañarrietara ere bai santakutzetan, San Prudentziara, Getariara... Kantuan ere egiten genuen, ikaragarri kantaria izan naiz ni. Elizan ere kantatzen genuen, latinez ere bai. Eztarriari ematen genion lana!


Oikiara joaten al zara oraindik?

Urtean behin edo joaten naiz gure etxera. Trena egon zenean, nahi nuenean joaten nintzen, orain ezin. Sanbartolometan ere bertsotan jardunda nago, 3-4 aldiz, hango zaharrei egiten zaien omenaldian.

Badakizu Oikian badabilela talde bat bertsoak ikasten?

Hori gauza ederra da!

Arratsaldean neska-mutil horiek ezagutzera eraman dugu. Behin Oikian, Ikastola Txikiko atetik sartu da Iñaxi, eta Unai Gijarori berehala hartu dio Artabillakoen tankera. Ikasleei galdetu zer baserritakoak diren, eta segituan kokatu ditu haien gurasoak edo aitona-amonak. Oikian lur ona, zaintzen bada. ■



Oso aparte zeuden garaian bertsolaritza eta gona naturaltasun guztiarekin bere lekuan egona Iñaxi berak ere ez daki zenbateraino den ona zenbateraino bidegilea zenbateraino sakona oholtza gainean bertso kantari ikusi dugun amona

Jon Maia

Gure-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran ingaterrara ingelesa praktikatzera

www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

Azkue



www.ricardoazcue.com
Txomin Agirre 4, behea tel. 615 793 406 / 943 862 651
elena@ricardoazcue.com fax: 943 862 748

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

Iriando optika



Kantauri plaza, 8, Zumaia. tel.: 943 86 04 86
Nagusia, 53, Azkoitia. tel.: 943 85 19 84

IRUITZ



Ileapaindegia Mistoia

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIK

Angelos Sorazu, 2
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
fax: 943 430 637

Talaya
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

ORRAZTEGI
ZUMAI



943 862 083

JUARISTI
jatetxea


Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basozi auzategia, 10 tel. 943 05 05 77

JUSTA
taberna

Erribera kalea, 20 www.justataberna.com
tel. 943 861 405 justa@justataberna.com

K&BI Patxita Etazazartea, 15
943 143 427



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

PAPER diseinu grafikoa



Roberto Gutierrez
686 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org

Kresala
Taberna



Julio Beobide 3, tel. 943 019 869

“Gure mailan, taldeen helburua da gu futbolari bezala prestatzea”

Unai Agirre (Real Sociedad), Marcos Calderon (Eibar) eta Peru Nolaskoain (Athletic) Zumaiaiko Futbol Eskolatik ateratako hiru harribitxi dira. Txikitatik nabarmendu ziren herriko taldean, eta azkar eman zuten jauzia garrantzi handiagoko taldeetara. Unai eta Marcos Realera joan ziren kadete mailan, eta Peru Antiguokora jubencil mailako lehenengo urtean. Egun, lehen mailan jokatzeko duten hiru euskal taldeen koloreak defendatzen dituzte. “Badakigu zaila dela lehen mailara igotzea, baina horretarako lan egingo dugu; ilusiorik ez zaigu falta”, aitortu dute.



TESTUA:IZASKUN URBIETA
ARGAZKIAK:ARNAITZ RUBIO APREA

Zumaiako haur askok bezala, Zumaiako Futbol Eskolan eman zuten izena 17 urteko hiru gazte hauek. “Ez naiz ongi gogoratzen, baina 8-9 urte izango genituen”, kontatu du Unai. Futbol Eskolan hasita, eta adinaren arabera, mailaz igotzen jarraitu zuten herriko taldean. “Infantil mailako oroitzapen onak ditut. Denboraldi polita egin genuen. Txapeldunen fasera iritsi ginen, Gipuzkoako talde onenekin batera. Pentsa, Realari irabazi genion hemen, Zumaian. Esperientzia polita izan zen”, gogoratu du Unai.

Ordurako, Unai eta Peru probak eta entrenamenduak egiten hasiak ziren Zubietan. “Alebinetan joaten ginen, torneoetara batez ere. Jende asko joaten zen, eta torneo guztietarako ere ez ziguten deitzen”, adierazi du Peruk. Marcosi, infantil garaian deitu zion Realak. “Ligan, Zumaiakekin jokatzen genuen, eta tarteka, berriz, Realarekin entrenatzera joaten ginen”, esan du Marcosek. Hala, kadeteetara heldu zirenean, Unai eta Marcos Realak fitxatu zituen. Peruk, berriz, Zumaiakekin jarraitu zuen, eta kadeteetako bi urteak herrian egin zituen. “Antiguokora iaz joan nintzen, jubenil mailako lehen urtean. Lehenagotik, entrenamendu batzuetan izana nintzen, eta iaz eman nuen hara joateko saltoa”, kontatu du.

Denboraldi honetan, aldaketak

2015-2016 denboraldian aldaketak izan dituzte hirukote honetako bik. Alde batetik, Marcos Eibar taldean jokatzen pasa da; Peru, berriz, Athleticera. Unai Realeko atea zaintzen jarraitzen du.

“Aurten Eibarren utzita jokatzen dut. Ondoren, egiten dudun urtearen arabera, Realeko arduradunek esan zidaten zerbait erabakiko dutela”, adierazi du. Denboraldi hasieran, Marcosi esan zioten hainbat taldetara utzita joateko eskaintzak zituztela. “Jokalaria batzuk aukeratu zituzten beste taldeetara joateko, eta ni horietako bat izan nintzen. Beraien iritziz, niretzat onena izango zelako erabaki zuten hori, eta, egia esan, nik gustura hartu nuen.

Beste esperientzia bat da niretzat; jende berria ezagutzeko aukera izan dut, herri berri bat, talde berri bat... Gustura hartu nuen”, kontatu du. Marcosek lau entrenamendu izaten ditu astean. Bitan Realarekin entrenatzera joaten da Zubietara, eta beste bi egunetan Eibarreara. “Unben entrenatzen gara, edo Ipuruia ondoan dagoen zelai artifizial batean”, esan du.

Marcos: “Realaren iritziz, niretzat onena izango zelako hartu zuten ni Eibarrera joateko erabakia, eta, egia esan, gustura hartu nuen. Beste esperientzia bat da niretzat”



Peruren kasua mediatikoagoa izan da, agian. Iazko martxoan jaso zuen Athleticen eskaintza, eta Antiguokorekin denboraldia bukatuta, baiezkoa eman zion talde zuri-gorriari. Peruren amak, Laura Esnalek, kontatu duenez, fitxaketaren behin betiko konfirmazioa egin aurreko hila-beteak zoratzeko modukoak izan ziren. “Euskal selekzioetik deitu zioten, eta handik, futbolarien managerrak deitzen hasi ziren. Guri, gurasooi, deitzen ziguten, baita Peruri ere. Baina, noski, adin txikikoa da, eta berez ezin dute berarekin hitz egin. Zoratzekoa izan zen”, esan du. Hala, manager bat bilatzea pentsatu zuten. “Athletic benetan interesatua zegoela jakin genuenean hartu genuen pertsona horrekin harremanetan jartzeko erabakia. Azkenean, bere bitartez egin zen fitxaketa. Ondoren, Realak egin zion eskaintza, baina Peruk erabakia hartuta zeukan”, kontatu du



Laurak. “Antiguokon nengoenean, Realarekin entrenatze-
ra joaten nintzen bi astetik behin, baina ez zidaten ezer
esaten. Athleticen eskaintza jaso nuenean, baiezkua eman
nuen”, esan du Peruk.

Fitxaketa honek zeresana eman zuen komunikabideen-
tan. Alde batetik, talde bizkaitarrak gipuzkoar bat fitxatzeak
azken urteetan behin baino gehiagotan izan den eztabaida
piztu zuen berriro. Beste aldetik, Peruk berak Athleticen eta
bertako jokalarri baten aurka twitterren jarri zituen adieraz-
pen batzuek ere izugarritzko oihartzuna izan zuten prentsan.
“Orain dela hiru urteko adierazpen batzuk izan ziren. Ume-
keriak, azkenean. Adurizek gola sartu zuen partida batean,
eta bere aurkako mezua idatzi nuen twitterren. Pentsatu nuen
onena barkamena eskatzea izango zela, eta hala egin nuen”,
adierazi du.

Hain justu, Athleticcek fitxatu zuenean, twitterreko kon-
tutik futbolarekin zerikusia zuen edozein mezu ezabatzeko
aholkatu zioten. “Mezu zaharrak borratzeari ekin nion or-
duan, baina momentu batean ezin izan nituen zaharragoak
begiratu, eta ez dakit nola, baina, txio hura, orain dela hiru
urtekoa, prentsan agertu zen”, kontatu du.

Sare sozialak erabiltzea ez diete debekatzen, baina bai
arduratsu jokatzeko. “Realean hasi ginenean, gogoratzen dut
nola sare sozialen inguruko hitzaldi bat eman ziguten. Or-
duan, norbaitek bere twitter kontuan *Montanier dimisioa* ja-
rri zuen eta izugarritzko montatu zen”, esan du Marcosek.
“Gauza da zure taldekoez ezer ez jartzea”, jarraitu du Unaik.
“Ez zure taldeari buruz, ezta besteei buruz ere. Azkenean, ez
dakigu non bukatuko dugun. Hor dugu Peruren kasua, esate-
rako”, bukatu du Marcosek.



ARNAITZ RUBIO APREA

Euskal selekzioarekin Espainiako Txapelketan

Historian lehenengo aldiz, herri bereko hiru jokalaria hautatu ditu Euskal selekzioko hautatzaileak Espainiako Txapelketan lehiatzeko. “Federaziokoek adierazi digutenez, inoiz ez da horrelakorik pasa”, adierazi du Laura Esnalek. Iaz, Peru bakarrik deitu zuten selekzioarekin jokatzera, eta finalera iritsi ziren, gainera. Mallorcan jokatu zuten, eta Madrileko selekzioari irabazi zioten. Unai kadeteetan izan zuen jokatzeko aukera, eta Marcosentzat lehen esperientzia izan da. Txapelketa honetako lehen fasea Andaluzian jokatu zuten abenduaren 28an eta 29an, Sevillan. Andaluziako, Nafarroako eta Gaztela-Mantxako selekzioekin batera aritu dira multzoan. Gero, fase finala izango dute Aste Santu inguruan beste hiri batean, eta handik Espainiako txapelduna aterako da.

Profesionalizazioa

Futbola jolas izatetik joko serio izateko pausoa eman zuten orain urte batzuk. Baina 17 urterekin eta punta-puntako taldeetan egonda, lanaren eta entrenamenduen gogortasuna eta sakrifizioa areagotu egin zaie. Jubeniletako mailarik gorenean jokatzeko dute hirurek. Lagunak txikitatik, aurkariak dira zelaian orain.

“Nire kasuan, entrenamenduen kontua asko aldatu zait”, esan du Peruk. “Lehen 3 aldiz entrenatzen nintzen asteen, eta ostiraletan gauza gutxi egiten genituen. Baina Athleticen asteen 4-5 aldiz entrenatzen gara. Igual du partidua bezperan izan dugun edo ez. Eta, orokorrean, entrenamenduak ere gogoragoak dira”, kontatu du.

Unai eta Marcos ere antzera ibiltzen dira. Kadeteetan hiru lan saio izaten zituzten asteen; orain, aldiz, 4 edo 5 izaten dituzte. “Astelehenetik ostiralera lau entrenamendu izaten ditugu, eta partidua igandean izanez gero,

Peru: “Antiguokon nengoenean, Realarekin entrenatzera joaten nintzen bi astetik behin, baina ez zidaten ezer esaten. Athleticen eskaintza jaso nuenean, baiezkoa eman nuen”

larunbatean egiten dugu bosgarrena”, adierazi du Unaiak. “Azkenean, hiru taldeak maila berean gaude eta exigentzia maila antzekoa da guztietan. Realean edo Eibarren, dinamika antzekoa jarraitzen dugu”, jarraitu du Marcosek.

Jubenil Ohorezko Mailan jokatzeko dute, eta sailkapenari begiratuta, Athletic da liderra, eta bigarrenari 12 puntuko aldea ateratzen dio. “Hauek dagoeneko liga irabazita dute”, esan du Marcosek erdi brometan. Guztira 16 talde dira, eta Gabonen aurreko aste-buruan ekin zioten bigarren itzulari. Unai pozik zegoen, bigarren dagoen Osasunari irabazi egin baitzioten. “Orain bosgarren gaude, eta bigarrenetik bi puntura. Eibar zortzigarren dago, baina bigarrenetik bost puntura. Denok horixe gaude”, kontatu du.

Liga gogorra dela aipatu dute hirurek, eta deskuidatuz gero, azkenak ere lehenengoari irabazteko gai dela azpimarratu dute. “Taldea batzuek besteek baino gogorrago jokatzeko

dute, eta etxetik kanpoko partiduak zailak izaten dira beti. Talde batzuk, adibidez, Eibar, atzean jartzen dira eta ez dute zirrikiturik uzten, ezin pasa geratzen gara”, esan du barrezka Peruk.

Hain zuzen, nahiz eta lider sendoak izan, liga gaizki hasi zuten bilbotarrek. “Bigarren jardunaldian galdu egin genuen jaisteko postuetan dagoen baten kontra, eta hirugarrenean, berriz, etxean berdindu egin genuen. Hortik aurrera bakarra galdu dugu, justu nire taldekide ohien aurka, 2-0 galdu genuen. Zelaia urez beteta zegoen, beraiek indartsuak dira, eta irabazi egin ziguten”, gogoratu du Peruk.

Elkarren aurka jokatzeari hasieran arraro egiten zitzaizela aitortu dute, baina dagoeneko ohitu dira. Oraingoan, lehen itzularen amaieran, Peru izan da bi derbyak irabazi dituenak. Eibarren kontra 3-1 irabazi zuten Lezaman, eta Realari 1-3 Zubietan. Eibar eta Realaren arteko derbya berriz Zubietan jokatu zen, eta 0-1 irabazi zuen talde armaginak.

Pausoz pauso, futbolari egin arte

Reala, Eibar eta Athletic. Lehen mailan dauden hiru euskal taldeen harrobiko parte izatea edozein umeren ametsa da. Orain, gazteak izanik, ametsa gero eta gertuago dute, baina oinak lurrean dituzte. “Bide honetan gurasoen aholkuak eta esanak garrantzitsuak dira guretzat. Baita taldeko entrenatzailerak eta arduradunenak ere. Azkenean, gutxi iristen dira lehen mailara, baina saiatu egin nahi dugu”, adierazi dute hirurek. Ilusioa, sakrifizioa eta lana. Hiru hitz horietan laburbiltzen da orain arteko ibilbidea. Baita hemendik aurrera egingo dutena ere. “Taldea hauen harrobietan egoteak ilusioa egiten du, noski. Ekipo nagusia lehen mailan egotea garrantzitsua da guretzat. Ikusten duzu zeure burua hor dagoela. Bi-hiru pausotara igotzeko”, esan du Peruk.

Baina talde horietara oso gazterik joatea ez dute positibotzat jotzen. “Alebinetan, adibidez, Realera joatea ez da ona. Unairi ondo atera zaio, eta oraindik bertan dago. Marcosi ere ondo atera zaio. Baina Athleticean, esaterako, hiru bakarrik daude alebinetatik hasita. Oso azkar hasten bazara, oso zaila da gero jarraitzea”, azpimarratu du Peruk. Marcos ere iritzi berekoa da. “Askotan bidea luzeegia egin daiteke. Ni askotan akordatzan naiz Zumaiakoko entrenamenduekin. Azkenean, herriko taldean lagunartean zaude, klasekideekin, koadrilakoekin eta barre eta bromarako tarte gehiago duzu. Oraingo taldeetan serioagoa da kontua”, kontatu du.

Goragoko taldeetan jokatzeko ordua iritsi bitartean, gogotsu ari dira lanean, eta pixkanaka klub bakoitzak dituen goragoko taldeetara igotzeko nahia dute. Izan ere, lehen mailako taldeetara iritsi aurretik, klub bakoitzak, beste mailetan, beste talde batzuk izaten dituzte. Realak, adibidez, hirugarren mailan jokatzen duen Berio dauka, eta bigarren B mailan dagoen Sanse. Eibarrek, berriz, hirugarren mailan dagoen Victoria du. Eta Athleticek, azkenik, hirugarren mailan dagoen Baskonia eta bigarren A mailan dagoen Bilbao Athletic.

“Taldeen helburua da gu prestatzea. Ez digute bai edo bai irabazteko esaten. Beraien helburua da gu hirugarren mailarako prestatzea. Berez, beste urtebete egin dezakegu



UNAI
AGIRRE

17
urte.

Postua: Atezaina.
Gustuko jokalaria: De Gea.
Afizioak: Kirolak egitea, batez ere, paletan jokatzeari, saskibaloian ibiltzearekin...
Gaitasunak: Ondo moldatzen da bat baten kontrako jokaldietan.
Perurentzat Unai...: Goiko jokaldietan, kórnerretan, adibidez, oso ona da.
Marcosentzat Unai...: Orokorrean, oso konpletua da.

jubeniletan, baina batzuk mailaz igotzen dituzte, eta horretarako prestatzea da kontua”, esan du Peruk. Azkenean, beste mailetan dagoen taldeetan ibiltzea, lehen mailara igotzeko trantsizio bide bat egitea da. “Gutxi igotzen dira, eta saltoa handia ez izateko, pixkanaka egitea da onena”, kontatu du. Horregatik, hirurak ados daude gauza batean: beraiek jokatzen duten mailan, klubaren helburua gazteak futbolari izateko bidea egitea da. Hain zuzen, goragoko talde horietako jokalarien batezbesteko adina oso gaztea da. Baskoniaren kasuan, esaterako, jokalaria zaharrenak 22 urte bakarrik ditu. “Gero eta gazte gehiago igotzen dituzte, eta horrek taldeak gero eta gazteagoak izatea dakar”, esan du Unai.

Jauzi horretarako baina, fisikoki prestatuta egoteaz gain, psikologikoki ere landu beharra dago. Taldeetan psikologoak izaten dituzte, eta hainbat hitzaldi ere izaten dituzte denboraldian zehar. Horretaz gain, Unai eta Marcosek autoebalua-



**MARCOS
CALDERON**

**17
urte.**

Postua: Esquin hegala.
Gustuko jokalaria: Messi, baina bere postuan, Zaldúa.
Afizioak: Kirola orokorrean.
Gaitasunak: Fisikoki erresistentzia handia, partidu osoak ongi aguantatzen ditu.
Perurentzat Marcos...: Bizia da, eta ongi bereganatu du urte hauetan ikasitako guztia.
Unairentzat Marcos...: Gogorra da, eta futbolari konpletoa da.



**PERU
NOLASKOAIN**

**17
urte.**

Postua: Erdilaria.
Gustuko jokalaria: Busquets.
Afizioak: Play-an ibiltzea.
Gaitasunak: Baloia hartutakoan lasaia da, ez da prezipitatzen.
Marcosentzat Peru...: Oso erregularra da. Zer espero den berarengandik, beti ematen du, ez du hutsik egiten, kunplitu egiten du.
Unairentzat Peru...: Ideiak garbi ditu, badaki partidu bakoitzean zer egin behar duen.

zio galdetegi bat betetzen dute partidu aurretik eta ondoren. “Plataforma bat dugu sarean, eta hor bakoitzak bere partidua lantzen du. Zer egin duzun eta zer ez, akatsak non egon diren, zer daukazu hobetzea... Banaka egiten dugu, etxean, eta gero entrenatzaileak erantzun egiten digu”, azaldu du Unai. “Partidua baino lehen ere betetzen dugu jakiteko ea motibata gauden edo ez, gogotsu gauden...”, jarraitu du Marcosek.

Entrenamenduen eskema

Lehen aipatu bezala, orain astean zehar entrenamendu gehiago dauzkate. Kategoriak eskatzen duen mailaz gain, Peruren kasuan, Athleticera joateak etxea uztea ekarri dio. Aitortu dueenez, hasieran, egokitzea pixka bat kostatu egin zitzaion. “Ez nuen inor ezagutzen, dena berria zen niretzat, baina lagunak azkar egin nituen eta orain gustura nago”.

Athleticeko harrobiko jendea bizi den erresidentzian dago Peru, Derion. Guztira, 15 pertsona daude, jubenilak eta Bas-

konía taldekoak. “Kadeteak baserrietan daude, familiarekin. Jubenilak eta Baskoniakoak erresidentzian gaude, eta Bilbao Athleticeko jokalariei pisua ematen diete Lezaman bertan”.

Goizetan han aldamenen dagoen eskola batera joaten da, eta arratsaldean entrenamenduak izaten ditu. “Athleticek aukeran ematen dizkizu eskola bat baino gehiago. Ni erresidentzia ondoan dagoen eskolara joaten naiz, eta nire klasean, Athleticen jokatzen duen beste neska bat ere badago”, kontatu du.

Batxilergoko bigarren maila ikasten ari dira hirurak, eta aitortu dute nahiko zaila egiten zaiela ikasketak eta kirola uztartzea. “Antolatzen jakin behar da, eta libre duzunean ikasi, bestela larri ibiltzen zara”, esan du Unai. “Gainera, taldeetakoek ikasteari ez uzteko gomendatzen digute. Guk nahi duguna ikasteko, baina jarraitzeko”, adierazi du Marcosek.

Hala, goizetan ikastera joaten dira, eta arratsaldeetan egiten dituzte entrenamenduak. Peruren kasuan, 17:00etatik

19:30era egiten du lan saioa, eta autobusak erresistentzia jasotzen du Lezamara eramateko. "Astelehenetan errekupeazioa deitzen dena egiten dugu. Astearteetan gimnasia joaten gara aurrea, eta gero zelaira joaten gara baloiarekin lan egitera. Asteazkenetan erresistentzia lantzen dugu, eta ostegunetan baloiarekin ibiltzen gara gehiago. Ostiralak libre izaten ditugu, etxera joan ahal izateko".

Unai Realeko atezaina da, eta horregatik, atezaintzako entrenamendu espezifikoa egiten du astean egun batean. "Eta besteetan, normalean, porteroen entrenadorearekin hasten gara lanean, eta gero beste taldekideekin elkartzen gara", esan du.

Marcosen kasua da bereziena. Astean bi egunetan Realarekin entrenatzera joaten da Zubietara, eta beste bi egunetan Eibarrera. "Astelehen eta ostegunetan Unairekin batera joaten naiz Zubietara, eta asteazken eta ostiraletan Eibarrekin entrenatzen naiz. Astelehenetan jokalaria bakoitzak duen postuak eskatzen duen entrenamendu espezifikoa egiten dugu. Astearteetan jai izaten dut. Asteazkenetan, berriz, Eibarren, gimnasia eta indarra lantzeko ariketak egiten ditugu zelaian. Os-

Unai: "Athletic da liderra eta gu bosgarren gaude, bigarrenetik bi puntura. Eibar zortzigarren dago, baina bigarrenetik bost puntura. Denok hortxe gaude"

tegunetan, Realarekin, posizioako kontuak eta partidua txikiak egiten ditugu. Amaitzeko, ostiraletan, asteburuko partidua prestatzen dugu. Ostiralero aurkarien bideoak ikusi eta aztertuta egiten ditugu", kontatu du.

Adin honetan lesioen kontua ere garrantzitsua da. Izan ere, lesio fuert batek ametsa zapuztu dezake batbatean. "Orain arte ez dugu izan lesio larriarik. Lesio txikiak izan ditugu, eta eskerrak. Ni denbora gehien bi astez egon naiz min hartuta", esan du Marcosek. Peruren taldean, adibidez, jokalaria asko daude min hartuta. "24 pertsonako plantilla batetik, 11 daude lesionatuta", kontatu du. "Nik iaz

behatza puskatu nuen eta 2 hilabetez egon nintzen geldirik. Justu selekzioarekin jokatzeko unea zen, eta ezin izan nuen joan", adierazi du Unaiak.

Irribarrea ahotik kendu gabe, eta oinak lurrean izanda, futbolari izateko ametsari heltzen diote hirurek. Etorkizunari beldurrik izan gabe, orainean zentratu eta lana ongi egitea da hiruren helburu nagusia. "Badakigu zortea aldeko izatea ere inportantea dela, baina oinarria gure lana, gogoia eta ilusioa dira". ■



Itzurrun Taberna

Pete K... et

Itzurrun Zuhaizbidea, 1. tel. 943 86 21 24

Zumaiako Gida, azken txanpan

Zumaiako merkataritza gida argitaratuko du BALEIKEk 2016an, paperean eta Interneten. Produktu berria oso harrera ona ari da izaten herriko merkataria, ostalari, profesional eta enpresen artean.



Zumaiako merkataritza gida argitaratuko du Baleikek 2016an, paperean eta Interneten. Produktu berria oso harre-ra ona ari da izaten herriko merkataria, ostalari, profesional eta enpresen artean.

Zumaiarentzat ahalik eta gidarik osoena eta erabilgarriena egitea da Baleikeko lantaldeak bere buruari jarritako helburua. Paperean ez ezik, Interneten ere argitaratuko dugu, mugikorretarako bertsio egokituarekin. Ez da urtebeteko lorea izango; epe luzeko proiektua da, urtetik urtera osatu eta hobetuko duguna.

Urrian ekin genion herriko dendari, ostalari, profesional eta enpresei gure eskaintzaren berri ematen, eta esan genezake hiru hilabete hauetan jaso dugun erantzuna oso ona izan dela. Ez da Zumaian landu den gida bakarra, baina bai papereko eta Interneteko bertsio aurreratua eskaintzen duen lehena. Eta herriko negozio guztiak egotea nahi dugulako ahalik eta prezio merkeenak jarri ditugu: 90 euro paperean, webgunean eta mugikorretan denon eskura egotearen truke.

Felix Aizpurua eta Agustin Zubimendi ari dira gidaren ezaugarriak azaltzen negozioz negozio. Salmenta fasea azken txanpan sartzeraz doa, baina oraindik ere badago aukera Zumaiako Gidan parte hartzeko. Interesa izanez gero, jarri gurekin harremanetan eta inolako konpromisorik gabe azalduko dizkizugu Zumaiako Gida berriaren ezaugarriak eta aukerak.



Harremanetarako:
gida@baleike.eus

Agustin Zubimendi: 688 678 128 / azubimendi@baleike.eus

Felix Aizpurua: 685 769 888



Urrezko Bikain ziurtagiria jaso du BALEIKEK

Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa egiaztatzen duen ziurtagiria jaso zuen Baleike Kultur Elkartek Iñigo Urkullu lehendakariaren eskutik, joan den abenduaren 21ean Gasteizen egindako ekitaldian. Urola Kostako Hitzak ere jaso zuen urrezko ziurtagiria, eta Otezuri Egoitzak zilarrezkoa.

GOIENA

Bikoiztu egin da webgunearen erabilera

2015ean 400.000 bisita gainditu ditu www.baleike.eus-ek, eta ia milioi bat orrialde irakurri dira.

Dagoeneko 11 urte joan dira 2004an herriko albisteak zabaltzeko webgunea sortzea erabaki genuenetik. Orduz geroztik, urtetik urtera hazi baino ez da egin baleikezale kopurua. 2015ekoa, baina, berezia izan da oso. Ikaragarria, hitz batean defintzekotan. 2014an 205.000 inguru izan ziren Baleikera egindako bisitak; 400.000ko langa gainditu dugu 2015ean. Hau da, 1.100 bisita egunero. Irakurritako orrialde kopurua ere izugarria da: ia milioi bat orrialde irakurri dira aurtien Baleike.eus -en, Zumaiaiko informazioaz, eta euskaraz. Imajina zenbat egunkari argitaratu behar diren kopuru horietara iristeko...

Beste datu pare bat baino ez: maiatzean 48.078 bisita izan zituen webgunea; eta maiatzaren 10ean jo zuen goia, 4.745 bisitarekin. Zer gertatu zen maiatzaren 10ean, halako bisita oldea izateko? Pulpoko jubentilek Bartzelonaren kontra jokaturako finala.

Baina zenbakien itsutu gabe, urtetik urtera gure eskaintza osatzea eta hobetzea da benetako erronka: 2015ean webgunea berritu dugu (Tokikomeko plataformarekin); .eus matrikula jarri diogu; Komunitatea atala sortu dugu talde, elkarte eta norbanakoentzat; web kamera jarri dugu Itzurunen; eskelak argitaratzen hasi gara; eta laster martxan izango den Zumaiaiko Gidari heldu diogu. Eta 2016rako baditugu asmo berriak...

Irakurri ere egiten dituzte artikuluak gure eta beste webguneetara eramateko beste moduetan: www.argit.eus in stalia martxan jarraitzen dira. Baita, baita denak berak erabakiak ez dira.

Zabaldtu artikulua:



Zabaldtu Baleike Whatsapp bidez

Mugikorretako bertsioari zenbait berrikuntza egin dizkiogu. Ahalik eta azkarren karga dadin, webguneke elementu gehienak ezabatu egin ditugu mugikorretako azaletik. Azken hamar albisteak erakusten ditu orain. Gainerako edukietara iristeko, maila bakarreko menua sortu dugu. Hor daukazue web kamera, eskelak, agenda, albiste gehiago... Eta albisteak errazago partekatzeke, Whatsapp-eko botoia jarri dugu albiste amaieran. Lehen albisteak Facebook eta Twitter bidez zabaltzeko aukera zegoen; orain Whatsapp ere erabil dezakezue edukiren bat zuen kontaktuei zabaltzeko.

kuttun
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936

malaur

Egin zaitez
BALEIKE
bazkide

BALEIKE
GERRAKO BOST
DESAGERTU
AURRTU DITUZTE

Maluta
jateitxea • taberna

oilasko erreka • kaxuelitik • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569

Nikol
taberna

Amiako plaza 943561516

NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, 83 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar induriguenea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

836 887 812 (Zumaia)
809 834 438 (Itziar-Deba)
www.carroceriasnoia.com

MARGARI fruta-denda

Tel. : 943 86 19 20
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

OLIDEN
construcciones y reformas, S.L.

647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com

Oliden arkitek-tura
678 875 652
943 143 093
kuttun@olidenreformas.com

ZARAUZ - ZUMAIA
www.olidenreformas.com

Fotxak
Telakak
Etxetitzak
(Sukaldeak, bainugaiak)
Industrien mantenimendua
Mota guztietako igelberritze lanak

Etxetitzaren inspezio teknikoki (ITE)
Zerbitzuko energetika
Fotxakren diseinua eta aholkularitza
Etxetitzaren berraketa diseinua
Mota guztietako proiektuak

OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaltz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbi@kirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Korta Induriguenea, A1 - 4. pat. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com - e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide Ibilbidea, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

Egin zaitez
BALEIKE
bazkide

BALEIKE
GERRAKO BOST
DESAGERTU
AURRTU DITUZTE

Primavera
pizzeria

943 247 011

www.laprimaverapizzeria.com

JOXEAN **GARCIA**

Dendari eta Ostalari Elkarteko presidentea

Saltoki **tradizionalaren** euskarria

Denborarekin, pixkanaka, Zumaiaaren historian errotuta egon diren zenbait denda ixten joan dira. Gaur egun apur bat besterik ez da geratzen. Horietako bat Eusebio Gurrutxaga plazan dagoen Garcia jantzi denda da. 1970eko hamarkadaren hasieran zabaldu zituen atea eta orain denda zabaldu zutenen semeak eramaten du, Joxean Garciak. Bera da, gainera, Zumaiaiko dendariak eta ostalariak biltzen dituen Zumaia Elkartearen presidentea.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

ERRETRATUA

Alberdi gozotegiak, Barbero Kojuak, Foto Garrek... Azken urteotan zenbait denda tradizionalak itxi dituzte atea eta haiekin Zumaiaiko historiaren hainbat pasarte galdu dira. Zabalik jarraitzen duenetako bat García jantzi denda da, Doraren denda bezala ezagunagoa zena. “García denda esan eta garai hartan ia inork ez zuen ezagutuko, baina Doraren denda esanda seguru baietz”. 1972an zabaldu zituen atea. Bera da herriko saltoki beteteranoena. Horregatik, eta beste arrazoi batzuegatik, iaz, denda daraman Joxean García (Zumaia, 1971) aukeratu zuten Zumaia Elkartearen presidentea. “Errebotean sartu nintzela esan daiteke. Denbora gehien zabalik zegoen denda omen zen gurea eta horregatik hartu zuen erabakia batzarrak. Hala ere, esan behar dut ni ez nengoela bilera hartan! Sorpresa izan zen. Irailean hartu nuen kargua eta astebete geroago Bilbon nintzen puntuEUS domeinuaren aurkezpenean!”.

Irribarretsu beti, Joxeanek Beheko plazan dagoen dendan hartu gaitu. Jertse, alkandora, blusa, txaketa eta txamarrez inguratuta aurkitu dugu. Argazki kamera atera eta orduantxe bi bezero sartu dira dendan.

–Barkatu, baina kasu egin behar diet.

“Azkoitiko bezero batzuk ziren. Urtero etortzen dira”, dio minutu batzuk geroago, alboko tabernako terrazan eserita, kafeari eragiten ari zaiola. Dendan eta azoka txikietan igarotzen ditu lanorduak. Betiere, bizitza osoan, gizonentzako eta emakumeentzako arropak saltzen. Familia lanbide honi lotuta egon da azken mende erdia baino gehiagoan. “Antonio eta Teodora ditut gurasoak eta oso ezagunak dira Zumaian. 60 bat urte daramatzate hemen. Aitak Carmelo Unanuen egiten zuen lan; amak, berriz, Avilako bere jaioterrian egiten ziren izarak eta mantak saltzen zituen Zumaiaiko eta Getariaiko plazetan. Ez ziren oraingo azokak bezalakoak; maletatxoan generoa sartzen zuen, autobusean beste herrietara joaten zen eta, mahai txiki bat jarrita, han egoten zen saltzen. Etxeko ganbaran ere saltzen zituzten gauzak. Hori 1960. urte inguruan izango zen. Denda, berriz, 1972. urtean zabaldu zuten. Hori izan da betidanik gure ogibidea”.

Hasiera hartan era guztietako janzkiak saltzen zituztela dio: “Umeen-tzakoak, gizonentzakoak, emakumeentzakoak, izarak, barruko arropak... denetik”. Orduko Zumaiaik gaur egungoarekin zer ikusirik ez zuela dio. “Orduan hiru denda izango ziren. Gero, dendak espezializatzen hasi ziren eta, gure denda txikia zela ikusita, gizonentzako eta emakumeentzako arropetara mugatu ginen”.

Bizitza Beheko plazan igaro duela dio Joxeanek. “San Pedro Eskolan ikasi nuen eta niretzat plaza oso leku berezia izan da. Etxezarreta kalean bizi ginen, baina bizitza plazan egin izan dut beti”. Gurasoek zabalduetako negozioarekin jarraitzeko erabakia hartu zuten seme-alabek. “Hasieran arreba hasi zen azoketara joaten, eta gero nik jarraitu nuen; gurasoek

“Irailean hartu nuen kargua eta astebete geroago Bilbon nintzen puntuEUS domeinuaren aurkezpenean!”

erretiroa hartu zutenean, ni geratu nintzen dendarekin”.

Bezero leialak dituztela dio Joxeanek, ez bakarrik Zumaiaikoak, baita beste herrietakoak ere. Gu egon garen denboran Azkoititik eta Itziartik etorritako bezeroak artatu ditu. “Askotan badakizkigu beraien gustuak edo neurriak; opari bat eroatera etortzen direnean, badakigu zer nolako arropak izan ditzaketen gustuko”. Atentzio pertsonalizatuaren aldeko apustua egiten duela nabarmendu du sarritan. “Azken finean, dena ez da dirua ateratzea;

garrantzitsua da jende hori gustura ateratzea. Ikusten badut pertsona bati arropa bat ez zaiola ondo geratzen, nahiago dut hori esan eta ez saltzea; gustura ateratzen ez bada, agian ez da itzuliko eta bezero bat galduko dut. Kate handiekin alderatuta, atentzio hori ematea da gure abantailetakoa bat. Hori eta dugun kalitate baremoa, prezio aldetik kate handiekin ezin garelako lehiatu”.

Arratsaldero izaten da dendan, baina, asteko goiz ia guztietan, azokaz azoka ibiltzen da janzkiak saltzen. “Arreba





INAKI URREZITA ZAPURUA

ezkondu zenean ikusi genuen dendatik denok ezin ginela bizi. Zumaian ezin zen beste denda bat ireki; Zaurautzen edo beste herri handi batean agian bai, baina Zumaian ez. Horregatik hasi ginen berriro ere azoka txikitara joaten. Orain bost herritara joaten naiz: Andoain, Bergara, Lekeitio, Zestoa eta Elgetara". Azoka horiek ez ditu hartzen dendaren konpetentziatzat. "Justu kontrakoa: osagarri ikusten ditut, azoka horietan dendan aurkituko ez dituzun gaiak aurkituko dituzulako. Esan zenean kinkileroak Amaiako plazatik Beheko plazara eramango zituztela, ni alde nengoen, horrek mugimendua ekarriko zuelako.

Azoka txiki batek jende asko mugitzen du eta hori onuragarria da dendentzat, tabernentzat eta okindegientzat".

Herriz herri, azokaz azoka, euskara praktikatu eta hobetzeko aukera izan du Joxeanek. "Euskara ikasi badut irrikagatik izan da. Eskolan ia ez genuen euskaraz egiten. Bilboko

"Euskara ikasi badut irrikagatik izan da. Eskolan ia ez genuen euskaraz egiten. Batzoki zaharrean klaseak ematen ziren eta han hasi nintzen ikasten"

irakasle bat genuen eta guk baino gutxiago zekien! Eskolan eta etxean dena erdaraz egiten genuen. Plazan ere, euskaraz ez genekielako, azkenean erdaraz egiten genuen. Hemen, plazan, batzoki zaharrean (Erkibe etxean), larunbatetan zenbait ekintza egiten zituzten eta horien artean euskara klaseak zeuden. Han hasi nintzen euskara ikasten". Euskaltegian ere makina bat urte ikasten aritu dela dio. "Hanka sartuko nuen, baina hitz egiten jarraitzen nuen. Orain ere akatsak egingo ditut, baina nik euskaraz egiten jarraituko dut. Azoketara joanda, jendearekin hitz eginda, asko soltatu naiz. Hala ere... ez dakit okerrerrako ez den izan, ze... a zer euskara erabiltzen duten herri horietan!

Batzuetan haien hizkera itsasten zait eta nonbaiten hitz egin eta galdetzen didatenean ea nongoa naizen, eta erantzuten diedanean zumaiaarra naizela, harrituta geratzen dira. 'Hala hitz egiten al da Zumaian?', 'Ez dakit, baina nik behintzat hala egiten dut!'"


Azken urteotan euskararen erabilpenean aldaketa handiak izan direla uste du Joxeane. “Orain jende gehiagok egiten du euskaraz. Orain 20 bat urte euskaraz hitz bat bera egiten ez zuen jendea orain euskaraz hitz egiten ikusten duzu umearekin. Hemen bizi gara, hemen hazi gara... Nire gurasoek, adibidez, ez dute euskaraz egiten, baina ez aurka daudelako, garai hartan ez zegoelako euskaraz egiteko aukerarik. Ama dendara etortzen denean eta bezero batekin euskaraz ari naizela ikusten duenean, sumatzen dut badakiela zertaz hitz egiten ari garen”.

2017. urtera bitartean izango da Joxean Zumaia Elkarteko presidente. “Gure artean harreman oso ona dugu eta gogotsu ekin diogu lanari. Elkarre bezala proposamenak egiteko gaude eta ekintzak bul-tzatzeke. Hala ere... nik uste elkarteak gauza gehiago egiteko egon beharko lukeela, ez promoziorako baka-rrik, baita zalantzak argitzeko eta dendariak dituzten ideietan laguntzeko ere. Horiak kanalizatzeko lanak hartu beharko genituzke. Kanpotik, agian, negozioa egiteko soilik dagoen zerbait bezala ikusiko gaituzte, baina hori baino askoz gehiago izatea nahiko nuke nik”. ■



BEZERO FIDELAK

*Bizitza osoko bezeroak etortzen
zaizkio dendara.*



denda:

Mendaro marinela, 1

tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^a Korta Industrigunea

Pab. A6.1, 2-5 mod.

tel.: 943 861 117

fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako

era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

Urtarrilean

Ordaindu zumaia txartelarekin eta lortu zure edertasuna zaintzeko bale sariak.

Honako dendatan erabili ahalko dituzu:

Farmaziak, parafarmaziak,
estetika zentroak, belar-dendak,
fisioterapia zentroetan,
optika eta ile-apaindegietan.



Zumaia Udala



CAJA RURAL



INAUTERIAK 2016

Zuen parte hartzerik gabe
ez dugu Inauteri jairik!

Mozorrotu eta irten kalera!!

Otsailak 6, larunbata

18:00 Eusebio Gurrutxaga plazan,
inauteritako mozorro festa

HAUR MOZORRO LEHIAKETA: 18:30ean.
0-8 urte bitarteko banakoei eta taldeei sari
bana, 9-16 urte bitarteko banakoei eta taldeei
beste sari bana.

Izen-ematea, 17:30ean plazan bertan.
Lehiaketarako musika berezi bat eskatu nahi
bada izen-ematean ekarriko da.

18:30-21:00 Oxford aretoan **Argazki Txokoa**

**HELDU ETA GAZTEEN MOZORRO
LEHIAKETA ETA ARGAZKI TXOKOA**

Sariak:

Larunbateko mozorro onenak:

Bikotea edo banakakoa 80 € / taldea 120 €

Argazki Txokoan herritarren botazioko sariak:

Bikotea edo banakakoa 80 € / taldea 120 €

EGILEA: MADDALEN ARZALLUS



Zumaia Udala

URTARRILA

ERAKUSKETAK

Oxford aretoan

Urtarrilak 5-24

Akuarela erakusketa
kolektiboa Amaracuarela.

URTARRILA

8, ostirala

19:30 Forondan Gune
elkartearen Meditazio
saioa.

22:00 Oxford aretoan
bertsolari gazteen saioa.

14, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum
El Club.

15, ostirala

22:00 Aita Marin antzerkia:
Jokoz kanpo, Borobil
Teatroa.

22, ostirala

19:30 Forondan Guneren
solasaldia: *Heriotzaren*
inguruko errito zahar eta
berriak Euskal Herrian.

24, igandea

12:00 Aita Marin antzerkia
haurrentzat: *Pintto Pintto*,
Anita Maravillas.

28, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum
Taxi Teheran.

31, igandea

12:30 Oxford aretoan,
Haritz Morras eta Telmo
Irureta rekin *Bikarrizketa*
antzezlan.



TAXI TEHERAN

28, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum



EL CLUB

14, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum

Zalla
• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak
Urda Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA


ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@euskalnet.net
BASOIA 12
20750 ZUMAIA
Tel. 943861018 / Fax. 943016175

Zumaia Hotela
Jatekoea
Kalestegia
Alai auzlegia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller
ZUMAIA MOTOR S.L.
José Rey Alfaro
Gerente
Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiaomotor@telefonica.net

EDU
ZUMAIA
OPTICA
Txomin Agirre kalea 6,
750 Zumaia, Gipuzkoa
T. 943.143.057
www.eduoptika.com

EDU
ZUMAIA
OPTICA
Txomin Agirre kalea 6,
750 Zumaia, Gipuzkoa
T. 943.143.057
www.eduoptika.com



INDUKZIOA

699€



PIROLITIKOA

WHIRLPOOL
ACM711BF+
AKZ663

NO FROST

188 x 60 x 65



449€

WHIRLPOOL

BSNF8152W

Hozkailu konbinatua

SIEMENS
WM14Q468ES
Garbigailua

499€




1.400 bira/min

8 kg

BOSCH
PKK631B17
Bitrozeramika

249€



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com



Orri zati hau aurkeztuz gero
%5eko **BEHERAPENA**
produktu hauetan 2016ko urtarrilean

ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!

Webgunea: talasoterapiazelai.com

Tel. 943 865100

Talasoaren ordutegia: Egunero irekita 9:30etik 20:30era

Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.

Talasoterapia



Gurekin zauden lehen unetik itsasoa senti dezazun nahi dugu. Zure egonaldia bizitasuna berreskuratzeko, osasuna hobetzeko, gorputza indarberritzeko eta lasaitasunaz gozatzeko aprobetxa ezazu. Sakon arnastu eta erlaxatu! Hau lortzeko itsasoarekin ituna onartzea proposatzen dizugu. Gure Talasoterapiako itsasoko uretan murgildu zaitetz, zure gorputza zaindu ezazu gure tratamenduekin, gure jatetxeko produktuak dasta itzazu eta garrantzitsuena: ingurune paregabeak eskaintzen digun itsas giroa arnastu.

